



PATTAR ZEZENAREN AURRETIK KORRIKA

Goizean goiz pattar zezena egon zen zezen-plazan eta txarangaren atzetik jende ugari hurbildu zen >6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-02-06

VIURTEA 1.356.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

TXARANGA DOINUAUAK ISILIK

INAUTERIAK 2008 Atzoko egunaren ostean amaitu dira Inauteriak; karrozek eta konpartsek alaitu zuten eguna 4-5



Azken eguna izanagatik Tolosako kaleak kolorez jantzi ziren, banakako zein taldekako mozorroekin. E. EZEIZA/N. URBIZU/ N. LATABURU/ I. TERRADILLOS



www.tolosaldekohitza.info

Aurtengo Inauterietako irudi eta bideoak



Sartu eta
gozatu
une onenekin

Bihar ez da Hitzarik izango

Bihar, osteguna, ez da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARIK argitaratuko. Zaldunita Egunean lan egin ondoren erredakzioak asteko atseden eguna hartuko duelako. Ostiralean berriz zuekin izango gara.



A Argazki zaharra



» DATAK

Egutegi judutarraren arabera, martxoaren 20aren ondorengo ilargi beteari segitzen dion lehen igandea da berpikunde iganda. Egun horri 7 aste kenduta Zaldunita Eguna dugu.

- 2009. Otsailak 22.
- 2010. Otsailak 14.
- 2011. Martxoak 6.
- 2012. Otsailak 19.
- 2013. Otsailak 10.
- 2014. Martxoak 2.

» HAINBAT DATU

■ 1968ean Tomas Hernandez Mendizabal margolari donostiarra egin zuen lehen aldiz Inauterietako kartela, CITEk eskatuta. Handik aurrera urtero egiten du.

■ Los Conformes 1951-61 urteetan Inauterietan ateratzen zen txaranga bat izan zen. Nafarroa etorbideko Editio tabernan (gaur egun Cid erlojutegia) zuen egoitza. Duela aste gutxi hil da bizi zen sortzaile bakarra: Emilio Medrano. Jantzi koloretsua ateratzen zuen. Aspal-di desagertu arren, bere pieza, Florentino Peñafielek egina, askotan jotzen dute Inauterietan. Amaroz da desagertu den azken txaranga eta lurre txaranga berriena, Bonberenea kontatu gabe.

«Ostegunean ezin izan nuen jai hartu lanean eta asko sufritu nuen, oso gaizki pasa nuen»

IÑAKI ULAZIA » Inauterizalea

Tolosa » Lanak txarangaren lekua hartu du aurten. Bihotzean zauri bat, baina inauteriak beti izango dira Inauterietan.

ESTI EZEIZA

Gozamenaren eta sufrimenduen artean ari da bizitzen aurtengo Inauterietan Iñaki Ulazia (Ibarra, 1979). Elkarrizketa hau egiteko garaian ere ezin galderei nahi bezain arreta jarri, nahikoa baita txaranga doinu urrun bat entzutea, belarriak tente jarri eta begira disimulan haruntza zuzentzeko.

Txarangaren barnean ibili ohi izan zara Inauterietan?

Aurten arte horrela izan da bai. Baina aurten ez naiz ausartu lanaren kontuagatik, ez bainekien ahal izango ote nuen edo ez. Aurten ez dut parte hartu beraz txarangan.

Noiz hasi zinen eta zein elkarteko txarangekin?

12 urte nituenetik iazko urterarte ibili naiz txarangan. Ostegun Gizenen Pintxanarekin atera izan du naiz, ostegun Gizeneko Txaranga historikoenarekin. Gero Arko Iris,

Iurre, eta beste txaranga batzuetan parte hartu dut.

Ze instrumentu eramaten duzu eskuan?

Hasiera batean klarineteaz iriteten nintzen eta azkeneko urteetan saxofoiarekin.

Nola bizi izan dituzu aurtengo Inauterietan?

Ostegunean oso gaizki pasa nuen. Ezin izan nuen jai hartu lanean eta hura amaitu eta etorri nintzanean, txaranga bukaeran zeuden eta ni sufritzen jarri nintzen, gaizki.

Zer dauka ba txaranga?

Txikitatik barnetik bizi izan ditut txaranga, Inauterietako doinuak etabar. Inauterietako gauzarik garrantzitsuena, niretzat behintzat, txarangaren doinuak dira. Txarangarik gabe inauteriak ez ziren berdinak izango.

Doinu debekatuak ere ba omen daude.

Inauterietako abestiak ez direnak ezin dira jo. Isun ekonomiko bat jartzen dizute. Txaranga ofizialek ezin dute beste abestirik jo. Eta niri ongi iruditzen zait, horrela izango ez balitz, abestiak nahastu egingo lirake eta galdu ere bai zenbait. Inauterietan beti erlaziozatu behar dira abesti batzuekin.



Txaranga barruan ez zaudenean, atzean saltoka. Fama hori omen duzu behintzat.

Bai, eta orain ere txaranga hor entzuten ditut eta saltatzeko gogoz nago.

Inauterietan txaranga kanpo bizi izango duzu ere izango du alde positiboa.

Bai, noski. Txaranga eta hori dena ondo dago baina hortik kanpoko festaz ez zara barnean zoazenean asko jabetzen. Giro hori aurten ezagutzeko aukera behintzat izango dut, nahiz eta berriz esango dudana, txaranga oso gustokoa dut.

Zergatik dute horrelako fama Tolosako Inauterietan?

Parte-hartzea dela uste dut gakoa. Jendeak edozer gauzarekin edozer gauza egiten du eta parte hartzerajoa ten da. Mundu guztiak zeozer egiten du, paperean sartzen dira.

Ibartarra zara.

Ni Ibarrakoa naiz, bai. Tolosak bestela ez dit ezer handirik esaten baina Inauterietan kontuarekin serio jartzen naiz eta toki guztiatan defendatzen ditut sutsuki Tolosako Inauterietan.

Ahal duzunean moztortzea ere asko gustatzen omen zaizu?

Beti txarangan egon naiz eta ez dut ezer berezirik egiten. Lehen, egunean zehar txarangarekin ibiltzen nintzen eta gauean lau trapu jantzi eta parranda. Baina betidanik nago egunean zehar kuadrilakoekin zer bait antolatzen gogoz; parrila bat eta kupel bat hartu eta zeozer egiten.



Mozorroa eramatearen arte berezia

Inauteriak» Karroza eta konpartsa askok bezain besteko arreta bereganatzen dute egun hauetan banakako mozorro batzuek.

ESTI ZEIZA

Karroza eta konpartsek betetzen dituzte egun hauetan Tolosako kaleak, eta jende gehiena hauei begira geratzen da. Ponpoxoenak, ikusgarrienak eta zalaparta handien sortzen dutenak beraiek baitira. Hala ere, ezin dira falta banakako mozorro horiek, toki gutxi hartu arren, jendearen harreta bereganatzea lortzen dutenak. Desberdinak direlako, orijinalak... gus-tatzen zaizkigu horrenbeste. Hala, mozorroak daramatzaten pertsona horiek igarotzen direnean, ingurukoek buruari bira ematen diote honen pausoak jarraituz. Hau gertatzen denean, esan daiteke mozorro ona edo gutxienez, desberdina daramala lagun horrek.

Nahiz eta mozorroa polita edo landua izan, askotan ez du arrakas-

tarik izaten. Hau zergatik da? Mozorroak eramaten ere jakin behar delako. Hau da, janzteaz gain, mozorro horren barruan sartu behar da pertsoniak eta dramaren arroparen arabera jarrera hartu. Hau ez bada egiten, mozorroak bere xarma galtzen du.

Tolosako Inauteriak zerbaitegatik baldin badira bereziak, bertako jendearen orijinaltasunagatik da, eta horren adierazgarri dira egun hauetan kalean ikusi zitezkeen mozorroak. Zaila da urterto orijinala izatea, imajinario handia izan behar baita horretarako. Hala ere, esan daiteke, tolosarrek lortzen dutela.

Askok telebistako pertsoniak izaten dituzte oinarri, beste batzuek berriz, gai askoak hartzen dituzte.



Putakumia, Sebillako arropa tipikoekin jantzitako txakurra, Euskal Herriko espazio-ontzia, eta Erdi aroko noblea ikusi zitezken atzo besteak beste, kalean. N. LATABURU / I. TERRADILLOS / E. ZEIZA



DATORREN URTERA ARTE

Karrozak eta konpartsak » Atzo ere Tolosako kaleak kolorez, musikaz eta mozzorrot bete ziren; eguraldi bikaina eta giro ona izan ziren nagusi.

KLATABURU-I-TERRADILLOS
Hausterre egunera heldu gara, beraz, aurtengo Inauteriak bukatu-tzat eman daitezke. Azken urte-tako goztiarrenak joan zaizkigu, eta joan ere goiz, azkar, kontur-tuerako. Eta gaukoak, atsedenera-ko baliatuko dugu gehienok, izan ere, hainbeste egun jaisten mungu-duta egon ostean, gorputzak geldi-akil bat murriztu da.

Hausterre egunera heldu aurre-tik, ordea, atzokoan izan zen zer-taz gozatu Tolosan. Zaldunifia bezalako kalean zehar zehar kar-rozak eta konpartsak, eta berriro ere hauen ikusizumek alaitu zituzten kaleak. Modu honetan, igandean guztiak ikusteko aukera izan ez zuenak horretarako parada bikai-na izan zuten. Eta bigarrenez ikus-teko aukera ere ez zen txarra atz-okoan, eguraldiari dagokionez giro bikaina baitzegoen, eta jendea-ri dagokionez, Zaldunifian baino la-

saigo zuden kaleak, beraz, apro-posa katean zehar ibiltzeko.

Era guztietakoak

Landuagok, simplegok, barre-garriagok, betikoak... denetarik zegoen atzokoan ere, Tolosaniak, Spies Girls taldeko kideak, zom-biak, Potota izeneko ambulanzia txikia, erromatarrak, kaxak bota bestean gainea jarrita zebiltza-nak, Oskorri gogoratzen zuten mu-sika taldea, Ultzamarik etorritako ondo saltzaileak, palomita sal-tzaileak eta abar luzeak.

Datorren urterako prestatzan

Bai, aurtengok bukatu dira, eta aurren askori gertatu zaiena ez gertatzeko egokiena hurrengo ur-teko mozzorrotan prestatzen has-tea izango da. Hurrengo urtean Zaldunifia eguna otsailaren 22an izango da, urtebete baino gehiago dugu, beraz.



Aurreztu 600 € zinezko txilenak ikusiz

600 € aurreztuko zinezko txilenak ikusiz
Kontratatu zuintz optikoa,

 eta aurreztu **600 €** urtebetean.

www.euskaltel.com



Jende asko bildu zen atzoko Pattar Zezanean. I.G.



Edozein mozorrorekin ausartzen dira zezen plazara ateratzen direnak. I.G.

Zezenari aurre egiteak arriskua suposatzen du. Minik ez zuen hartu gazteak, baina bai susto ederra. IMANOL GARCIA



Aiz Orratz txaranga, Zezen Plazan jendea eta giroa alaitzen. Hauek ere ez zuten galdu plazan gertatzen zena. I. GARCIA

Pattarra edanda atera ote dira?

@ Irudietan. Gure webgunean Tolosako Inauterietako irudiak ikus ditzakezu, eta baita bideoak ere: Pattar zezena, karrozak, aisialdi taldekoak, mozorroak, txaranga, jendea, txupinazoa, haurrak, musika, dantzak... Sar zaitetz eta ea zeure burua topatzen duzun horietakoren batean. Bestela ere, urtean zehar nahi duzunean ikusi ahal izango dituzu, metatu egiten baititugu. Zer? Animatuko al zara orain?

www.tolosaldekohitza.info



Aiz Orratz txarangarekin Zezen Plazatik kanpora atzean jendea dutela. Datorren urtera arte pattar zezenik ez. I. GARCIA



Ahaldun Nagusiaren bisita

AMEZKETA » Gipuzkoako Ahaldun Nagusia, Markel Olano, atzo Amezketan izan zen, herria gertuagotik ezagutzeko asmoz. Gauzak horrela, Amezketako alkateak, Jesus Iñurritak, bost proiekturen inguruan hitz egiteko baliatu zuen Olanoren bisita, «ekonomikoki garrantzi handia duten bost proiektutaz». Proiektu horien barnean herri bideak, herriko 3 frontoien berritze lanak, Ugarte Amezketara arteko bidegorria eta oinezko bidearen beharra, Errotazarra Museoa eta Kultur-Gizarte etxea aipatu zituen Iñurritak. Udaletxean bildurik egon ondoren ordubate inguru, diputatu nagusia eta Udal ordezkariak herrian barrena ibili ziren. NEREA URIBIZU



Agate Deunaren bezperan kantuan

ALEGIA » Atzo Agate Deunaren eguna izan zen eta Alegiako Txintxarri abesbatza kalera irten zen herenegun, astelehenean, Agate Deunaren bezperan kantuan aritzeko tradizioari jarraituz. Eskuan makilak ziztuztela eta artzai-andrez jantzita, herrian barrena ibili ziren abesbatzako kideak. 19:00etan irten ziren Larraitz auzoko Kurpil kafetegiarean ondotik. Irten eta berehala hasi ziren kantuan, ondoren santa-eskean

Alegiako auzo eta kale gehienak zeharkatu zituztelarik, Agate Deunaren omenezko kantuek eta koplak kantatuaz. Urtero ospatzen den ohitura da Agate Deunaren bezperan kalera irteteko. Makila eskuan eramatea beharrezkoa izan ohi da, kantuak edo koplak dirauen bitartean, lurralde kolpeak emanaz eritimoa markatzeko laguntzen baitu, ohituraren eta kantuen zati bilakatu delarik. EDUARDO ARRAYET

G Gutunak

Urtarrilaren 26ean eginiko manifestazioaren balorazioa

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak larunbatean egindako manifestazioen ostean oso positibotzat baloratzen du egindako aldarrikapena, eta, behin eta berriz garbi gelditu zen, ez Euskal Herrian, ez gure eskualdean, herritarrok ez dutela honelako proiektu txiki-tzaile eta kapitalistarik nahi.

Gero eta gehiago gara! Hori garbi gelditu da, jendeak gero eta ger-

tuago ikusten du makroproiektu hau, eta horren eraginez informatzen ari da. Ez da kasualitatea larunbatean 1.500 pertsona elkartu izana edo Arrasaten egindako manifestazioan 15.000 lagun biltzea. Proiektu honen bultzatzaileek gero eta zailago daukate proiektu hau saltzea eta hori badakite, horregatik aukeratzen dute inposizioaren bidea edo kriminalizazioarena. Gogor salatzen ditugu bide hauek! Herritarrek proiektua gelditzea, eztabaida erreala eta partehartzailea egitea eskatzen dute!

Atxikimendu ugari jaso zituen manifestazioak, hainbat alderdi politiko, sindikatuak, gizarte eragi-leak...Elkarlanetik animatu nahi diegu bakoitzak bere esparruan lanean jarraitzeko eta proiektu honen kontrako mezua zabaltzeko, denen artean lortuko dugu!

Besterik gabe esker mila parte hartu duzuen guztiei horrelako manifestazio jendetsua eta polita egiteagatik! Gure eskuetan dagoelako, AHT Gelditu!

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana.

Landa eremuari buruzko ekitaldien balorazioa

Amezketara » Udaletxean egingo dute, bihar, 19:00etan. Herritarrek animatzen dituzte bertan parte hartzera.

ERREDAKZIOA

Urtarrilean landa eremuaren inguruan antolatutako hilabete tematikoa amaiera emateko bi hi-

tzaldi, ibilaldi tematikoa eta arratsalde osoko jardunaldiak jasotako material guztia bildu eta ebaluaketa egitea baino ez da geldituzten. Material hau txosten batetan jasoko da eta DVD bat prestatu jardunaldi guzti hauetan egindako irudi grabaketekin.

Amezketako Udaletik ebaluaketa jendaurrean egiteko eskaria bat luzatu dute. Udaletxeko gabinetan izango da, bihar, 19:00etan.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

H Hilberria

MIGUEL BALERDI SARALEGUI

JAUNA

Herenegun hil zen, 84urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goianbego-

Bere anai-arrebak: Joaquín, Ixabel eta Bittor Jambriña, Eladio (†) eta Bittori Tolosa; ilobak: Garbiñe, Amaia, Ion, Eladio eta Begoña; lehenengusak eta gainerako ahaideak.
Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta areen etor zaitzela GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, (Amezketako) SAN BARTOLOME parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Helbidea: Arretxe baseria
OHARRA: Gorputz Beila Tolosako Funeraria Vascongadaren Tanatorioan dago, gaur asteazken arratsaldeko 17:30ak arte.

AMEZKETA
2008ko otsailaren 6a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Txarangen lana aste guztian zehar goraipatzekoa!



Barraken prezioak garestiegi

Geltokian jarri dituzte aurtien barrakak, etxeko txikiengozamena izan ohi dira beti ere. Baina urte urte gero eta zailago izaten dute bertan ibiltzea, prezioa oso altu jartzen baitute. Gaur prezio erdian ibiltzeko aukera izango dute... HITZA

K Komikia

Martin Mantxo




A Agurrak



Urte askoan!

Irati Rivera Bejerano. Gure potxolak bihar urtebete. Asteasuako aitona-amoneta eta familiaren partetik.



Urte askoan!

Martina Esnaola Balda (Ugarte-Amezketeta).

Bihar 78 urte. Ondo pasa eta muxu asko familiaren partetik.

Otsailean zure kioskoan



Egin zaitetz harpidedun:

hitzaren harpidedunentzat eskaintza berezia: **18 €/urtean**

Deitu **943 30 35 54**